

Donostia, 2023ko ekainaren 19a

82/23 PRENTSA OHARRA

EKAINAREN 23TIK AURRERA DBUS-EK

ZERBITZU GEHIAGO EMANGO DITU UDAN

Ekainaren 23an, ostiralean, San Juan bezperan, **Dbuseko udako zerbitzuak hasiko dira**, eta abuztuaren 31ra arte, osteguna, eskainiko dira. Udan, halaber, Dbusek zerbitzu bereziak eskainiko ditu denboraldiko ekitaldirik garrantzitsuenetarako.

Era berean, uda honetan berriro jarriko da abian Illunbeko aparkalekuaren eta hiriko Erdialdearen arteko **anezka zerbitzua**, eta Atotxa Erreka eta Antiguo lotuko dituen **mikrobus linea berri bat** ere jarriko da abian.

1. Anezka zerbitzua dohainik Illunbeko aparkalekutik hiriko Erdialdera

Uztailaren 8tik, larunbata, irailaren 10era arte, igandea, Dbusek eta Donostiako Udalak, Mugikortasun Departamentuaren bitartez, **doako autobus anezka zerbitzua** jarriko dute berriro, Illunbeko aparkalekua eta hiriko Erdialdea lotzeko.

Anezka zerbitzu horrek Illunbeko doako aparkalekuaren eta Donostiako

Erdialdera arteko joan-etorriak erraztuko ditu, hirian garraio publikoa sustatzeko eta trafikoa murrizteko helburuarekin. Azken urteetan, zerbitzua urteko bi alditan eskaini da, Gabonetan eta udan, eta zerbitzua ondo hartu dute herritarrek.

Anezka zerbitzua **20 minutuan behin** izango da, **egunero, uztailaren 8tik, larunbata, irailaren 10era arte**, eta **bi geltoki** izango ditu, orain arte bezala:

- **Illunbeko geltokia:** irteerak 11:00etatik 22:20ra, 20 minutuan behin
- **Mendeurreneko plazako geltokia:** irteerak 11:10etik 22:30era, 20 minutuan behin.



2. Mikrobus linea berria Atotxa Errekara

Uztailaren 1ean mikrobus linea berri bat jarriko da martxan, eta linea horrek **Atotxa Erreka eta Antiguoko auzoak lotuko ditu** 60 minutuan behin.

Linea berri horrek ibilbide hau egingo du:

- Joanekoa: Funikularra, Iruña, Antiguoko Anbulatorioa, Irakasle Eskola-Tolosa 14, Unibertsitatea-Tolosa 70 I, Tolosa 112, Tolosa 138, Infernua eta Atotxa Erreka 26.
- Itzulerakoa: Atotxa Erreka 26, Atotxa Erreka 46, Atotxa Erreka 62, Markotegi Parkea, Zuatzu II, Errotaburu, Amerika Plaza, Tolosa 111, Unibertsitatea-Tolosa 77, Irakasle Eskola-Tolosa 25, Zumalakarregi 21, Esklabak, Satrustegi I, Satrustegi II eta Funikularra.

Linea berriak Antiguoko ardatzean dauden geltoki batzuk izango ditu, beraz, erabiltzaileek 3-4 minutuan behin Erdialdera doazen lineetara eta Dbuseko sareko beste linea batzuetara **doan aldatzeko** aukera izango dute. Zerbitzuak ordutegi hau izango du:

- Lanegunak:

- Irteerak Funikularretik: 7:40tik 21:40ra, 60 minutuan behin.
- Irteerak Atotxa Errekatik: 8:00etatik 21:00etara, 60 minutuan behin.


- Larunbatak:

- Irteerak Funikularretik: 8:40tik 21:40ra, 60 minutuan behin.
- Irteerak Atotxa Errekatik: 9:00etatik 21:00etara, 60 minutuan behin.

- Jaiegunak:

- Irteerak Funikularretik: 9:40tik 21:40ra, 60 minutuan behin.
- Irteerak Atotxa Errekatik: 10:00etatik 21:00etara, 60 minutuan behin.

47 ATOTXA ERREKA




ORDUTEGIAK HORARIOS

| FUNIKULARRA | Asteegunetan Laborables | Larunbatetan Sábados | Jaiegunetan Festivos |
|-----------------------|-------------------------|----------------------|----------------------|
| Lehenengoak Primeros | 07:40 | 08:40 | 09:40 |
| Maiztasuna Frecuencia | 1h | 1h | 1h |
| Azkenak Últimos | 21:40 | 21:40 | 21:40 |

| ATOTXA ERREKA 26 | Asteegunetan Laborables | Larunbatetan Sábados | Jaiegunetan Festivos |
|-----------------------|-------------------------|----------------------|----------------------|
| Lehenengoak Primeros | 08:00 | 09:00 | 10:00 |
| Maiztasuna Frecuencia | 1h | 1h | 1h |
| Azkenak Últimos | 21:00 | 21:00 | 21:00 |

06/2023



Era berean, linearen funtzionamenduaren eta erabileraren balorazioa egingo da.

3. Gautxori zerbitzua, ekainaren 23an, San Juan bezperan

Ekainaren 23an, ostiralean, San Juan bezpera, Dbusek auzoetara doazen autobus zerbitzuen ordutegiak luzatuko ditu, eta Gautxoriak egongo dira 4:00ak arte Boulevardetik.

Hauek izango dira zerbitzuak:

| LINEA | IRTEERA GEHIGARRIAK BOULEVARD-etik |
|-----------------------------|---|
| 5-BENTA BERRI | 23:00 – 23:40 Zerbitzu gehiagorako, Antiguora zerbitzua eskaintzen duen 25 linearen ordutegia ikusi. |
| 8-GROS-INTXAURRONDO | 23:00 |
| 9-EGIA-INTXAURRONDO | 23:00– 00:00* (*Mons, Garro eta Zubiaurrera zerbitzua) |
| 13-ALTZA | 23:30* (*Buenavistatik) – 23:45 – 00:00** (**Juan XXIII-etik eta Buenavistatik) |
| 14-BIDEBIETA | 22:40 – 23:00 – 23:15* – 23:50* Gipuzkoa Plazatik (* Zubiaurretik) |
| 16-IGELDO | 23:00 – 00:00 Okendo 18tik |
| 18-SEMINARIOA | 22:30 – 23:00 – 23:45 Gipuzkoa Plazatik |
| 19-AIETE-BERA BERA | 22:15 – 22:30 – 23:00 – 00:00 Peñaflorida kaletik Aiete Pasealekura eta Bera Berara zerbitzua |
| 23-ERRONDO-PUIO | 22:30 – 23:30* Urbietatik 38tik (*Gipuzkoa Plazatik) |
| 25-BENTA BERRI-AÑORGA | 23:20 – 00:00* (*Antiguo, Berio eta Añorgara zerbitzua) |
| 26-AMARA-MARTUTENE | 23:00 – 23:30 – 00:00 |
| 28-AMARA-OSPITALEAK | 23:15 Amarara zerbitzua eskaintzen duen 26 linearen ordutegia ikusi |
| 32-PUIO-ERRONDO | 22:45 Urbietatik 38tik |
| B1-BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA | 1:00 – 2:00 – 3:00 – 4:00 |
| B2-AIETE-BERA BERA | 1:00 – 2:00 – 3:00 – 4:00 |
| B3-EGIA-INTXAURRONDO | 1:00 – 2:00 – 3:00 – 4:00 |
| B4-AMARA-RIBERAS-MARTUTENE | 00:15 – 1:00 – 2:00 – 3:00 – 4:00 |
| B6-ALTZA | 1:00 – 2:00 – 3:00 – 4:00 |
| B7-IGELDO | 1:00 – 2:00 |

| | |
|---|----------------------------|
| B8-MIRACONCHA-B.BERRI-SEMINARIOA | 00:30 – 1:30 – 2:30 – 3:30 |
| B9-AMARA-ERRONDO-PUIO | 00:30 – 1:30 – 2:30 – 3:30 |
| B10-ZUBIAURRE- BUENAVISTA BIDEBIETA- | 00:30 – 1:30 – 2:30 – 3:30 |

4. Dbus zerbitzu gehiago auzoetara

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, hiriko gune gehienetan aparteko zerbitzuak egongo dira; izan ere, udan autobusek beranduago egingo dituzte azken irteerak, eta asteko egun guztietan zerbitzuak beranduago bukatu dira. Hauek dira zabalitzen diren ordutegiak:

| LINEA | UDAKO APARTEKO IRTEERA ORDUAK |
|--------------------------|--|
| 5-BENTA BERRI | 23:40 |
| 8-GROS-INTXAURRONDO | 22:22* – 23:00 (*22:30 larunbatetan eta igandeetan/jaiegunetan) |
| 14-BIDEBIETA | 22:40 – 23:00 |
| 16-IGELDO | 22:35 – 23:05 – 00:00 |
| 18-SEMINARIOA | 22:30 – 23:00 |
| 19-AIETE-BERA BERA | 23:00 |
| 23-ERRONDO-PUIO | 22:30 |
| 25-BENTA BERRI-AÑORGA | 23:20* – 00:00 (*23:15 larunbatetan eta igandeetan/jaiegunetan) |
| 26-AMARA-MARTUTENE | 23:00 – 23:30 – 00:00 |
| 29-HEGO INTXAURRONDO SUR | 22:45 |
| 32-PUIO-ERRONDO | 22:45* (*22:00 igandeetan/jaiegunetan) |
| 36-SAN ROKE-ALDAKONEA | <i>Askatasunaren Hiribidetik San Roke-Matiantz:</i> Lanegunak: 22:10 – 22:40 Larunbatak: 22:40 – 23:10 Igandeak/Jaiegunak: 21:10 – 22:10 |
| | <i>Askatasunaren Hiribidetik Konkorreanantz:</i> Lanegunak: 22:20 – 22:50 Larunbatak: 22:20 – 22:50 – 23:50 Igandeak/Jaiegunak: 21:50 – 22:50 |

Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan **gautxori aurreko** ohiko **zerbitzuak** egongo dira. Gautxori aurreko zerbitzuak dira eguneko lineen azken zerbitzuetatik (gutxi gorabehera 22:00etan) Gautxoriak hasten diren arte (gutxi gorabehera 00:15ean) ematen direnak. Hau da, zerbitzu batzuk besteekin lotzen dituztenak. Gautxori aurreko zerbitzuen geltokiak Boulevardaren eta Gipuzkoa plazaren inguruan daude.



5. Gautxori zerbitzu gehiago ostiral eta larunbatetan

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, asteburuko gautxori zerbitzuak goizaldeko 4:00etan amaituko dira, ostiral, larunbat eta jai bezpera guztietan. Boulevardetik irtengo dira.

- B1-BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA
- B2-AIETE-BERABERA
- B3-EGIA-INTXAURRONDO
- 26-AMARA-ERRIBERAK-MARTUTENE
- B6-ALTZA
- B7-IGELDO
- B8-MIRAKONTXA-BENTABERRI-SEMINARIOA
- B9-AMARA-ERRONDO-PUIO
- B10-ZUBIAURRE-BIDEBIETA-BUENAVISTA

| LINEAK | OSTIRALAK/JAI BEZPERAK | LARUNBATAK |
|-------------|---------------------------------|---------------------------------|
| B1-B2-B3-B6 | 1:00etik 4.00etara, 60 minutuan | 0:30etik 4:00etara, 30 minutuan |

| | | |
|-----------|---|--|
| | behin. | behin. |
| B4 | 0:15 + 1:00etik 4:00etara, 60 minutuan behin. | 0:15h + 0:30etik 4:00etara, 30 minutuan behin. |
| B7 | 1:00 – 2:00 | 1:00 – 2:00 |
| B8-B9-B10 | 00:30etik 3:30era, 60 minutuan behin. | 00:15etik 3:45era, 30 minutuan behin. |

6. Zerbitzu bereziak udako ekitaldietarako

Aparteko autobus zerbitzuak egingo dira hirian udan egin ohi diren ekitaldietarako (Jazz Jaialdia, Aste Nagusia, kontzertuak, etab.). Informazioa ekitaldi bakoitzean emango da bereziki.

7. Maiztasun handiagoa 24 eta 27 lineetako autobusetan

Ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte, jaiegunetan 24-Altza-Gros-Antiguo-Intxaurren eta 27-Altza-Intxaurren-Antiguo-Gros lineetan autobusak 30 minutuko maiztasunez ibiliko dira, izan ere, hil horietan asteko egun guztietako ordutegiak bateratuko dira.

8. Zerbitzu hobea Igeldora

Zerbitzuak 20 minutuan behin 16-Igeldo linean, goizez zein arratsaldez


Pasa den ekainaren 1etik aurrera, 16 linearen zerbitzuak maiztasun handiagoz emango dira, ohiko erabiltzaileen eta turista eta bisitarien garraioa errazteko. **10:05etik 21:05era bitartean zerbitzu gehiago emango dira**, denbora tarte horretan zerbitzuen maiztasuna 20 minutukoa izango baita.

Gaueko zerbitzua Igeldora ekainaren 23tik

Ekainaren 23tik aurrera, ostirala, eta abuztuaren 31ra arte, osteguna, 16 lineak zerbitzu gehiago emango ditu Gipuzkoako plazatik, 23:05ean eta 0:00etan beste bi irteera gehiagorekin.

Era berean, ekainaren 23tik abuztuaren 31ra arte Igeldo auzoak autobus zerbitzua izango du gauean, ostiral, larunbat eta jai bezperatan, **B7-IGELDO GAUTXORIA**ekin. Gautxorria 1:00etan eta 2:00etan aterako da Boulevardetik, eta Kontxa

16 IGELDO



KANPINA / CAMPING



pasealekutik joango da zuzenean Igeldoraino eta Kanpineraino.

9. 39-Urgull lineak ez du zerbitzurik emango udan

2023ko udan, Dbuseko 39-Urgull mikrobus lineak ez du zerbitzurik emango. Linea honek normalean ekaineko eta iraileko asteburuetan eskaintzen zuen zerbitzua, baita asteko egun guztietan ere ekainaren 23tik abuztuaren 31ra bitartean.

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo (www.dbus.eus) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.

